

# **Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2004 Juan San Martin Jaunari emate ekitaldiko hitzaldiak**

---

**Discursos del Acto de entrega del premio 2004  
Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades,  
Cultura, Artes y Ciencias Sociales otorgado a  
D. Juan San Martín**

---

**Discours de la cérémonie de remise du prix 2004  
Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral d'Humanités,  
Culture, Arts et Sciences Sociales décerné à  
M. Juan San Martin**

Donostia, 2004.IX.8

---



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**



**EUSKO  
IKASKUNTZA**



---

Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2004 Juan San Martin Jaunari emate ekitaldiko hitzaldiak = Discursos del Acto de entrega del premio 2004 Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales otorgado a D. Juan San Martín = Discours de la cérémonie de remise du prix 2004 Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral Humanités, Culture, Arts et Sciences Sociales décerné à M. Juan San Martin. – Donostia : Eusko Ikaskuntza ; Arrasate : Euskadiko Kutxa, 2004.

41 or. : ir. ; 24 cm

ISBN: 84-8419-896-0

I. Eusko Ikaskuntza II. Euskadiko Kutxa III-V. Tit.

---

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS – SOCIÉTÉ D'ETUDES BASQUES

Institución Fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia – Miraconcha 48 – Tel. 943 310 855 – Fax 943 213 956 – 20007 Donostia  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

ISBN: 84-8419-896-0

Depósito Legal: SS-76/05

Michelena artes gráficas, S.L. - Astigarraga (Gipuzkoa)

# Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2004 Juan San Martin Jaunari emate ekitaldiko hitzaldiak

---

Discursos del Acto de entrega del premio 2004  
Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades, Cultura,  
Artes y Ciencias Sociales otorgado a D. Juan San Martín

---

Discours de la cérémonie de remise du prix 2004  
Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral d'Humanités, Culture, Arts  
et Sciences Sociales décerné à M. Juan San Martin

## AURKIBIDEA - ÍNDICE - SOMMAIRE

---

Sarrera – Introducción – Introduction .....	5
<b>Joxe Mari AIZEGA</b> Mondragon Unibertsitateko Errektore Akademikoa / Rec- tor Académico de Mondragon Unibertsitatea .....	7
<b>Jean-Michel UHALDEBORDE</b> Paue eta Aturrialde Herrietako Unibertsitateko Lehen- dakaria / Président de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour .....	9
<b>Pedro BURILLO</b> Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektorea / Rector de la Universidad Pública de Navarra .....	11
<b>Gabriel INSAUSTI</b> Nafarroako Unibertsitateko Linguistika eta Hizkuntza Departamentua / Departamento de Lingüística General y Lengua Española de la Universidad de Navarra .....	12

**Rosa Miren PAGOLA**

Deustuko Unibertsitateko Ikasleen eta Hizkuntza Politikako Errektoreordea / Vicerrectora de Alumnado y de Política Lingüística de la Universidad de Deusto ..... 14

**Juan Ignacio PÉREZ**

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea / Rector de la Universidad del País Vasco ..... 15

**Xabier RETEGI**

Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria / Presidente de Eusko Ikaskuntza ..... 27

**Oier SAN MARTIN** ..... 29

**Juan M<sup>a</sup> OTAEGI**

Euskadiko Kutxaren Lehendakaria / Presidente de Euskadiko Kutxa - Caja Laboral ..... 31

**Luis CAMPOY**

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailburua / Consejero de Educación del Gobierno de Navarra ..... 34

**Salvador ORDÓÑEZ**

Unibertsitate eta Ikerketen Estatu Idazkaria / Secretario de Estado de Universidades e Investigación ..... 36

**Juan José IBARRETXE**

Eusko Jaularitzaren Lehendakaria / Presidente del Gobierno Vasco ..... 39

- Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutxak, Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzietan, adiera zabalenean hartuta, Euskal Herriko curriculum nabarmenena duen ikerlaria gorendu nahi duen saria emango dute urtero. Beharrezkoa da saritutako pertsonaren lanak oro har Euskal Herriko zientzi garapenari lagundu izana. Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa sariak, Euskal Herriko Unibertsitateetako departamentu eta institutuetan edo zientzi eta kultur Erakundeetan lanean diharduten zientzialarien *modus operandi* eta emaitzetan bikaintasunak duen balioa indartu nahi du.

- Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y Caja Laboral han establecido un premio que pretende distinguir anualmente al investigador que posea el curriculum científico más destacado de Euskalerría, en el área de las Humanidades y Ciencias Sociales, entendidas en el sentido más amplio. La obra global de la persona premiada deberá haber contribuido de manera efectiva al desarrollo científico de Vasconia. El premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral pretende fomentar el valor de la excelencia en el *modus operandi* y en los resultados de la investigación de la comunidad científica que trabaja en los departamentos e institutos universitarios o en instituciones científicas y culturales de Euskalerría.

- Eusko Ikaskuntza-Société d'Etudes Basques et Caja Laboral ont instauré un prix qui se propose de récompenser chaque année le chercheur ayant le curriculum le plus remarquable du Pays Basque, dans le domaine des Humanités et Sciences Sociales, considérées dans le sens le plus large. L'oeuvre globale du lauréat devra avoir effectivement contribué au développement scientifique du Pays Basque. Le prix Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral se propose de promouvoir la valeur de l'excellence dans les méthodes et les résultats de la recherche de la communauté scientifique qui travaille dans les services ou les institutions scientifiques et culturelles du Pays Basque.

**JOXE MARI AIZEGA jna.**

Mondragon Unibertsitateko Errektore  
Akademikoa  
Rector Académico de Mondragon  
Unibertsitatea



Arratsalde on,

Mondragon Unibertsitatearen izenean hitza hartu ondoren lehen lehenik nire zorionik beroenak eman nahi dizkiot Juan San Martin Ortiz de Zarate jaunari.

Nire zorionarekin batera, berari buruz eta bere lanari buruz iruzkin labur batzuk egin nahi nituzke.

San Martin jaunak Euskal Herriaren kulturaren bilakaeran eragin nabarmena izan du, errekonozimendu handiko pertsona da eta anitzak garatu dituen ekimenak.

Norbaitek idazten zuen berari buruz euskal kulturari kontzesiorik gabe eskainitako bizitza dela, berea.

Gure Unibertsitatearen historia eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa buruan izanda, gogora arazi eta azpimarratu nahiko nituzke San Martin jaunaren hasierako garaiak.

Gerra zibilaren ondoren sortutako egoera latza zen Euskal Herrian eta zer esanik ez Arrasaten edo Eibar bezalako herrietan. Egoera hartan orduko pertsonak aurrera ateratzeko behar izan zuten bai borondatea eta indarra. Horien artean zeuden gure herri honentzat hain inportanteak izan direnak.

San Martin jaunak berak elkarrizketa batetan esandakoa erreproduzitu nahiko nuke: "Eibarrera itzuli ginenean, artean gerra amaitu gabe zegoela, lanean hasi nintzen morteroak-eta egiten. Gauez eskolara joateko adina

ordaintzen zidaten. Seiak arte lanean aritzen nintzen, eta seiretan eskolara. Oso lotua, jolasteko batere denborarik gabe. Lana eta lana, ikasi eta ikasi”

Hitz horietan indarra, ilusioa, borondatea,... entzun daitezke. Ingurugiro horretatik irten zen San Martin jauna, euskal kulturaren aldeko eragilea.

Hor agertu zaizkigun baloreak: lana, konpromezua eta hezkuntza dira ere gure Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren muinean daudenak.

Borondate eta indar horren emaitza izan dira Juan San Martin gerra osteko kulturgintzan orohar, eta euskalgintzan batez ere, sortzaile, ikerle eta bultzatzaile izatea. Askok dira hainbat aldizkarietan argitaratu dituen kultura zabaltzeko balio izan duten lanak.

Euskararen inguruan ere oparoa da ere bere lana, bere argitalpenak, alfabetatzearen alde ere hainbat egindakoa, ikastolen sorreraren bultzatzailea, eta Euskaltzaina 1957tik eta 1988rarte.

Olerkaria ere bada, Otsalar goitzenarekin, bere poemak aldizkarietan argitaratu ondoren orain dela urte gutxi batzuk liburu batetan bildurik argitaratu dira.

Beste alderdi bat ere bada azpimarratu beharrekoa, 1989an lehen Ararteko izendatua izan zen eta baita Ombudsman Europar Institutuaren presidentea.

Bukatzeko azpimarratu nahiko nuke bere kirol zaletasuna, batik bat mendiarekiko zaletasuna.

Ekimen eta jarduera gehiagori buruz hitz egingo nuke, baina nik uste nahikoa dela argi uzteko Juan San Martin-ek ekarpen oparoa, zabala eta aberatsa egin diola gure herriari. Ekarpen guzti horiek herri honekiko konprometuzko pertsonal sakon batetatik.

Irakurri dut Juan San Martin-ek esana dela: **“Arbolia letz, gizona be, bere frututik ezautzen da onduen”**. Arrazoa du; eta ikusita zein ugari eta aberatsak izan diren Juan San Martinek emandako fruituak, asko esaten digu berari buruz.

Horregatik ohore bat izan da Mondragon Unibertsitatearen izenean “Giza, kultura, arteak eta gizarte zientzien Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa sariaren epamahiride izatea eta ekitaldi honetan parte hartzea

Zorionak berriz ere



**JEAN-MICHEL UHALDEBORDE jna.**

Paue eta Aturrialde Herrietako Unibertsitateko  
Lehendakaria  
Président de l'Université de Pau et des Pays  
de l'Adour

Monsieur le Président Ibarretxe, Monsieur le Conseiller, Messieurs les Présidents, Messieurs les Recteurs, Mesdames et Messieurs, Juan San Martin,

Il me revient le plaisir et l'honneur d'évoquer Juan San Martin en sa qualité d'écrivain. Etant économiste de formation, je ne suis guère intellectuellement armé pour engager cet exercice avec la subtile méthodologie que mobiliserait un littéraire. Le parcours de l'homme que nous honorons aujourd'hui devrait pourtant m'inciter à plus d'audace tant il a démontré par ses œuvres l'intérêt et la fécondité d'une transgression des frontières intellectuelles. Ses origines et son activité professionnelle initiale ne le prédisposaient pas à entrer en littérature. A la réflexion, c'est peut être son premier métier de tourneur qui lui a donné le sens et le goût des phrases bien tournées.

Peut-on dissocier l'œuvre de l'écrivain de l'itinéraire de l'homme? Les deux sont tellement riches que toute tentative de synthèse pertinente est vouée à l'échec. L'œuvre de Juan San Martin est qualitativement et quantitativement impressionnante. Elle ne se laisse pas enfermer dans un genre. Elle me paraît marquée par une dualité stimulante formée d'un ancrage territorial et d'un voyage perpétuel. Ses racines profondément accrochées à Eibar n'empêchent pas notre récipiendaire de déployer ses ailes dans de multiples directions. Il est ainsi tout à la fois un écrivain d'une grande fidélité à sa terre et un écrivain d'une insatiable curiosité.



Juan San Martín c'est d'abord la fidélité. Fidélité à Eibar bien sûr. Son lieu de naissance, son point de départ dans la vie, une inspiration en écriture dont il ne se départira jamais. N'a-t-il pas exprimé cet attachement en signant parfois certains de ses articles du pseudonyme de " Egurendara " en mémoire du " Caserío " de ses ancêtres ? Nombre de ses contributions mettent en valeur dans des descriptions qui laissent toujours place à la poésie, l'histoire de Eibar, sa richesse artistique, ses singularités architecturales, l'artisanat et le si particulier damasquinage, sa toponymie, ses grands hommes et ses traditions populaires, ses croyances et ses chants. Même les noms des champignons de Eibar n'ont pas échappé à son attachement à cette terre. Le parler si spécifique à Eibar ne pouvait que séduire Juan San Martín. Il ne s'est pas privé de le commenter mais surtout avec notamment " Zirikadak " et " Eztenkadak " d'écrire dans ce basque dialectal usité à Eibar. On comprend mieux que cette ville soit reconnaissante à Juan San Martín et se réfère souvent à ses écrits comme à sa mémoire vivante.

Mais cette fidélité à son terroir n'est pas le signe d'une vision étriquée et localiste. Les multiples facettes qu'il en a exploré reflètent l'étonnante curiosité intellectuelle de Juan San Martín. Il est rare de rencontrer de nos jours autant d'érudition chez un écrivain aussi fécond. Il serait sans doute plus facile de repérer les domaines dans lesquels il n'a pas fait d'incursions que de recenser les champs qu'il a labourés. Les sillons partis d'Eibar sont allés loin, de l'ethnographie aux recensions bibliographiques, de la réédition d'auteurs anciens aux études biographiques, de la philologie à l'histoire en passant par les chemins buissonniers des montagnes de Guipuzcoa. Ce mouvement perpétuel du particulier à l'universel est impressionnant. Il témoigne d'une capacité de travail et de dons hors du commun.

En résumé, Juan San Martín paraît avoir épousé la singularité d'un lieu pour mieux explorer une pluralité de territoires intellectuels. Ce n'est pas le moindre de ses mérites, que écrivain, il soit parvenu à bâtir un tel édifice sans négliger ses engagements au service de la société basque. Les responsabilités qu'il a exercées sont à l'image de l'homme et de l'écrivain, toujours en appétence et en tension intellectuelles et pétri de générosité.

Alors, pour tout cela, en vous priant de m'excuser de n'avoir pu que survoler à tire d'aile votre travail, permettez-moi, cher Juan San Martín, de m'associer à la volée de louanges qui s'abat aujourd'hui sur vous. C'était bien la moindre des choses que de vous tresser des lauriers en remerciement de ce que vous nous avez fait découvrir et aimer grâce à votre plume.

Je vous remercie de votre attention.



**PEDRO BURILLO jna.**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektorea  
Rector de la Universidad Pública de Navarra

Arratsaldeon, buenas tardes.

Glosar en pocos minutos el perfil de Juan San Martín como Ararteko no es fácil, pues no es fácil sintetizar en pocas palabras cualquier trabajo pionero. Y Juan San Martín, primer Ararteko, ocupó su cargo institucional con un bagaje previo nada despreciable: firme defensor de los derechos humanos, luchador por la libertad y comprometido con la lengua y la cultura de su pueblo. Valores éstos que fueron norte y guía en su trabajo, no exento de tribulaciones como corresponde al inicio de cualquier tarea, y en el que el hoy galardonado empleó lo mejor de sus capacidades. Su trabajo, bien lo sabemos todos, tuvo el legítimo reconocimiento internacional con su nombramiento y ejercicio, entre 1994 y 1995 del cargo del Director del Instituto Europeo Ombudsman.

Juan San Martín hizo camino en su papel de Ararteko: su afán por el detalle imprimió un toque de perfección en su tarea, alejada así de la improvisación, tan común en muchos otros inicios institucionales.

Supo conjugar los intereses y preocupaciones de los ciudadanos, de los que se sentía y así era y es percibido, próximo, con los sutiles instrumentos jurídicos. Y siempre desde la perspectiva de buscar soluciones, no de generar problemas, aspecto este que transmitió inequívocamente a sus colaboradores. Así, una de las características más acusadas de su trabajo ha consistido en el carácter mediador y conciliador de sus esfuerzos: escuchar, comprender y orientar a los ciudadanos han sido sin lugar a dudas, los ejes bien reconocidos de su trabajo, que sus sucesores han mantenido. Creó pues escuela, como correspondió a tan alto magisterio.

El humanismo reconocido y hasta apasionado de Juan recubrió a sus acciones de una pátina de amor entrañable a su pueblo y a su gentes. En suma Juan es un hombre bueno, cuyas enseñanzas, cuyo trabajo y cuyos logros son tan reconocidos por quienes creemos aún en un nuevo mundo de libertad, de paz, de solidaridad, que haga a los ciudadanos más próximos y más comprometidos con el tiempo en que vivimos.

Gracias, Eskerrik asko Juan, por todo. Por haber sido y por ser como eres. Tal cual.

### **GABRIEL INSAUSTI**

Nafarroako Unibertsitateko Linguistika eta  
Hizkuntza Departamentua  
Departamento de Lingüística General y Lengua  
Española de la Universidad de Navarra



Juan San Martín-ekin behin baharrik hitz egin dut, orain dela lau urte. Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaro batean, Félix Marañak antolatuta. Jorge Oteizari buruzko hitzaldi bat eman zigun eta ogeigarren mendeko euskal kultur osoa nolabait laburtu zuen: Jorge Oteiza, jakina, baina Barandiarán, Caro Baroja, Aresti, Jon Mirande, Blas de Otero, Koldo Mitxelena... Asko gustatu zitzaidan berak esana garai hartan, bereziki hizkuntzei buruz. Baina inpresio orokorra oso garbia zen: gizon langile, Euskal herriko jende, historia eta paisaiatz maiteminduta, Euskal herriaren izan-eko konzientzia handirekin. Bere mila bederatzita irurogei ta laueko poema "Nik baino lehen ere" dioenez bezala,

Nik baino leen ere  
beste batzuk zapaldu zuten lur hau.  
Nik baino lehen ere  
baterialen argi-leiho hontatik begira zuten.

Nik baino lehen ere  
kezka larri-minduak ziren.  
Nik baino lehen ere...  
Baina, nere zainetan dabilen odol hau,  
itzal izugarri hontan, nerea dut.

Felipe Juaristi-ren itzulpena honela dio:

Antes que yo  
Hubo otros que pisaron esta tierra.  
Antes que yo  
Hubo otros que miraron por este tragaluz de la materia.  
Antes que yo  
Hubo otros que acariciaron objetos perecederos.  
Antes que yo  
Hubo otros que se esmeraron.  
Antes que yo...  
Sin embargo, mía es la sangre que corre  
Por mis venas en esta hora de sombras  
(de Giro Gorri, EHU, 1998, p. 128).

En ese poema de Otsalar encontré yo la clave de la vida y la persona de Juan San Martín: su actividad incansable, su generosidad ilimitada proceden de su conciencia de pertenecer a una Historia que no se ha iniciado con él mismo, de ser un eslabón en una gran cadena, cuyo principio y fin no alcanzamos a ver: la curiosidad por el pasado se traduce en urgencia por actuar en el presente, en “esta hora de sombras”, pero también por fecundar el futuro. Desde ese futuro, gracias, Juan San Martín, eskerrik asko.

**ROSA MIREN PAGOLA and.**

Deustuko Unibertsitateko Ikasleen eta Hizkuntza Politikako Errektoreordea  
Vicerrectora de Alumnado y de Política Lingüística de la Universidad de Deusto



Arratsaldeon jaun-andreok.

Juan San Martin eta Euskal Kultura gaiaz mintzatzea dagokidanez, aurrena honako hauxe esan beharrean nago: San Martin jaunak Euskal Kulturarekin izan duen harreman bizi, hertsu eta konprometitua urrunetik ere ezin daitekeela hain laburki behar bezala agertu. Izan ere, gure herriaren kulturako alderdi nagusiez arduratu izan da bizitza osoan, bai berak ongi ezagutu nahi izan duelako, bai euskal gizartean horren kezka eta kultura bera zabaldu nahi izan dituelako.

Euskal etnografia, euskal artea, historia, musika, literatura... dira gogokoan izan dituen gaiak, euskal kultura, alegia, berak espreski dioen bezala. Eta, ekinez eta maitasun handiz, horretara eman du bizitza gaztarotik, hasieran ikasiz eta aztertuz eta aldizkarietan eta liburutan idatziz, eta, gero, eskoletan irakasten ez ziren gai horiek astero eta luzaro egunkarian, euskaraz eta gazteleraz, atseginez edonork irakurtzeko bezala idatziz.

Horixe da Juan San Martinen nortasunaren ezaugarri garrantzitsuenetarikoa: asko maite izan duela berak euskal kultura, baina ez gutxiago herriari eskaini eta herrian zabaldu eta horren ardura zuten ekintzetan parte hartu eta gazte talde guztiei lagundu.

Mendizale sutsua izan denez, Euskal Herria goiti-behiti ezagutu du. Mendikirolean izan zituen lorpenak alde batera utziz, mendizaletasuna eta, horrekin

batera, eskalada eta espeleologiaren bultzatzaile eraginkorra izan da, bide batez euskal lurrekiko maitasuna Eibarren eta Euskal Herrian zabalduz.

Euskararen inguruan eta euskaraz egin izan duen lan ugaria ere kultur ikuspegi horren barruan sartu beharko genuke neurri handi batean. Esaterako, hain irakurriak eta aipatuak eta hain euskaldunak diren *Zirikadak* eta *Eztenkadak* eurak ere lan etnografiko bikaina direnik ez dago ukatzerik.

Luzeegia litzateke garaiko aldizkari denetan eta liburutan argitaratu dituen lanak, edo eta aste kulturaletan eta elkarteetan izan dituen partaidetzak ekartzea. Gazte-gaztetarik, Juan San Martinek euskal kultura izan du bizitzarako arnas eta eragile, eta kultura horren hedapena, helburu.

Jaso dezadan amaitzeko, *Bidez* artikulua bildumaren aurkezpenean dioena: "Nere aldetik, euskaldunon jarreraz kontseilurik eman behar banu, honako hau zabalduko nuke gure herriaren lau haizetara: hizkuntza eta kultura, edozein talderen gainetik".

Zorionak, Juan San Martin, hain merezia duzun sari honengatik!

### **JUAN IGNACIO PÉREZ jna.**

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea  
Rector de la Universidad del País Vasco



### **Juan San Martin euskaltzale**

Gaur hemen hitza hartuko dugunok labur aritu behar dugu ezinbestean, nahiz Juan San Martin bezalako pertsonaia baten aipamen labur bat egitea erraza ez den. Hemen aipatu litezkeen kontuen artean, Juan San Martinen euskaltzaletasunaz mintzatuko naiz. Euskararen eta euskal kulturaren alde

berak egindako lana oso aberatsa eta emankorra izan denez, luzeegi aritu beharko nuke lan hori era egokian balioztatzeko eta merezi bezala goraiпатzeko. Hori horrela izanik, kontu txiki batekin konformatuko naiz eta kontu txiki hori baino ez dut aipatuko.

Ikuspuntu jakin batetik, bere gizartea baino bizkorrago mugitzen den aurrelari bat bezala har daiteke zientzialari on bat. Bada, nire aburuz, bere euskaltzaletasunari dagokionez, benetan zientzialari edo aurrelari eredugarria izan da Juan San Martin, gauzak bere garaiko gizarteak baino azkarrago ikusi baitzitu eta horren arabera beste gehienak baino azkarrago ere aritu baitzen bere ekarpenak eginez. Aski ezaguna denez, 60. hamarkadaren bukaeran piztu eta hedatzen hasi zen euskara eta euskal kulturaren aldeko mugimendua. Baina Juan San Martinek ez zuen gogorik izan mugimendu handi horren zain gelditzeke. Berak aspaldi bereganatuak zituen euskal kulturak zuen arazo larriaren nondik norakoak eta bazekien negar egitearekin ez zela ezer konponduko eta beraz, zerbait egiteko beharra zegoela. Jarrera baikor horretatik sortu ziren San Martinek idatzitako lehen bi liburuak, biak euskaraz egindakoak, olatu euskaltzale handi hori abiatu baino askoz lehenago: *Juan Antonio Moguel eta Urkitza: bere bizitza ta lanak* izenburukoa 1959an, eta *Zirikadak* izenburu duena, 1960an hain zuzen. Azkeneko umorezko ipuinen bilduma Eibarko euskaraz idatzi zuen San Martinek eta horri esker, frankismoaren garai ilun hartan bere egileak umorearen bidez lortu zuen milaka lagunek euskaraz irakur zeza ten lehendabizi.

Baina ziren urteak ziren, eta San Martinek idazten zuena garaiko agintariek begi onez ikusi ez zuten, zentsuratu egin zituzten liburuaren zenbait pasarte. Zentsuratutako pasarte horietako bat ekarriko dut hona, uste baitut horixe izan daitekeela Juan San Martini, euskaltzale eta demokrata eredugarri honi egin dakioken goraiпamenik egokiena. Hona hemen pasartea:

“Kartzelatik atera berria den pilotaria frontoira joan da. Bertan, liluratu, begira eta begira gelditzen da. Lagunak esaten dio: “Beno, lehengo moduan dago”. Eta berak: “Ez! Koadro bat gehiago”. “Zelan? Lehen hama bi koadro zeuden eta orain era hamabi daude!” “Eta han goikoa? Franco-ren koadroa!”.

Erreportaje grafikoa  
Reportaje gráfico  
Reportage graphique

---




Argazkiak/Fotografías: Alberto Martinena, Arantza Cuesta



Bazkariaren aurretik Jesus Altuna, Lurdes Fernández, Oier San Martín, Xabier Retegi, Juan José Ibarretxe eta Pilar Belzunce.




Bazkariaren aurretik Joxe Joan González de Txabarri, Xabier Retegi, Juan Mari Otaegi, Juan José Arrieta eta Juan Cid-ekin hitz egiten.



Ekitaldi akademikoa hasi aurretik Chillida Lekura egindako bisitaldian Luis Chillida gidari izan zutelarik.



Juan San Martin Eduardo Chillidaren eskulturari begira.



Partaide guztien argazkia bisitaldiaren amaieran.



Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Saria jaso duten guztiak Juan Mari Otaegi, Salvador Ordóñez, Juan José Ibarretxe, Joxe Joan Gonzalez de Txabari, Miren Azkarate eta Xabier Retegirekin.



Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Saria jaso duten guztiak Juan Mari Otaegi, Salvador Ordóñez, Juan José Ibarretxe, Joxe Joan Gonzalez de Txabarrí, Miren Azkarate eta Xabier Retegirekin.



Juan Mari Otaegi, Luis Campoy, Salvador Ordóñez, Juan José Ibarretxe, Juan San Martín, Joxe Joan Gonzalez de Txabarrí, Miren Azkarate eta Xabier Retegi.



Juan Mari Otaegi, Juan José Ibarretxe, Juan San Martín eta Xabier Retegi.



Salvador Ordóñez, Juan José Ibarretxe eta Luis Campoy ekitaldi akademikoan.



Juan Mari Otaegi, Salvador Ordóñez, Juan José Ibarretxe, Luis Campoy eta Xabier Retegi ekitaldi akademikoan.



Juan San Martin saria jasotzen Juan Mari Otaegi eta Xabier Retegiren eskutik.




Juan Mari Otaegi, Juan San Martin eta Xabier Retegi.





Zabalaga baserria ekitaldian zehar.



Ekitaldi akademikoari amaiera emateko Oreka tx taldeak bere saioa eskeini zuen.



**XABIER RETEGI jna.**

Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria  
Presidente de Eusko Ikaskuntza

Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Jauna, Unibertsitate Estatu Idazkaria, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailburua, Gipuzkoako Ahalduen Nagusia, Juan San Martin, Agintari eta jaun andre guztiok, AGUR

Oso egun zoragarria gertatu da gaurkoa. Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral Saria hamargarren aldiz ematen dugun egun honetan, orain arteko saridunekin –edota beren senitartekoekin– bildu ahal izan gara ekitaldi erakargarri batean eguerdian, eta oraingo honek urrezko itxiera jartzen dio egitarauari.

Saio honetara Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakaria, Gipuzkoako Ahalduen Nagusia eta beste goi agintariak, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Sailburua eta Espainiako Hezkuntza Ministeritzako Estatu Idazkaria agertzeak Sariaren maila adierazten du. Halaber, gure gizartean diharduten Unibertsitate publiko zein pribatuen errektoreak ere Sarian zuzenean inplikaturik aurkitzea prestigioeko seinale garbia dugu. Eusko Ikaskuntzako presidente bezala eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiet guztiei, eta zuei –lagunok– ere bai gure deialdiari jaramon egin diozuelako.

Juan San Martin adiskideari 2004ko edizioako gure Saria egokitu zaio eta guretzat ohore handia da bere izena gehitu ahal izatea, aurretik errekonozimendua jaso zutenen zerrendara. Juan San Martin, bestalde, aspalditik lerro zuen Eusko Ikaskuntzaren postulatuekin, eta horrek ere pozez betetzen gaitu, beraren gisako pertsonak egiten baitute handi gure Elkarteak.

Nire hitzak soberan egon litezke, aurretik aritutakoek bikain mugatu baitute Juanitoren bizitzaren nondik norakoa. Oso gutxi erantsi dezaket nik

esandakoa aberasteko. Baina, hala ere, ez nuke aukera galdu nahi, Juan San Martinekiko beti izan dudan miresmena azaldu gabe. Zinez, miretsi egin dut bere lana.

Eibartarra goitik behera, aspaldi ezagutu nuen nik Juanito, lantegiz lantegi bere makinak saltzen saiatzen zeneko egunetan. Tailerrean forjatutako gizona dugu, beraz, Juanito, mailuaren tiriki-tauki soinuarekin hazi eta hezi delarik. Unibertsitate zabal eta joria izan da berarentzat gizarte margo askotarikoa: tornulari, apaiz, fabrika zuzendari, baserritar, mediku, dendari, irakasle, politiko eta gure bizitza arruntean ingura gaitzaketen espezimen guztiekien ikasi du eta guztiekiko errespetuan jardun du beti.

San Martinen ibilbide profesional zein intelektualak beste eibartar handi harena ekartzen dit gogora, enpresa mundua eta kultura hain maisuki uztartzen jakin izan zuena: Toribio Etxebarria. Alfa-ko sortzaile eta agintari izateak ez zion eragotzi Euskaltzaindiko kide izatea, ezta euskal idazle jatorra ere. Gizartearen gorabeheretarako egundoko sentsibilitatea erakutsi zuen Etxebarriak. Juan San Martinek bezala.

Juanito gizon aberatsa izan da, *ematen jakin duelako*. Eta horretaz hamaika adibide jar nitzake. Eskuzabala giza harremanetan; agian, bizitzak –edo gizartea?– Juanitorekin ez erakutsitako tamainan!

